

gori-gori

Eguzkia ta Ilargia, antxina senar-emazteak* ei ziran;
Lurra, bion umea.

Ondo konpontzen ei ziran andra-gizonok,
alkar asko maitatuz.

Lurra ere asko maite eben:

orduak eta egunak emoten ei ebezan berari begira.

Behin, honela Lurrari bergira egozala
ba dinotso Eguzkiak Ilargiari:

– *Ikusten? Ikusten dozu Lurraren edertasuna?*

– *Bai. Ba dakust.**

– *Ba neuk emoten deusat Lurrari edertasun hori.*

– *Bai, gero?* –dirautso* Ilargiak.

– *Bai. Neuk neure argitasunaz.*

– *Ez ete deusat, gero, neuk emoten,* –dirautso Ilargiak–
goizetan sort-erazoten dodan iruntza?*

– *Ez da!*

– *Ba da!*

Eztabaidan hasi ziran... Eta hasarratuta amaitu eben.

Hasarre-aldian Eguzkiak,

bere senetik urtenda*,

eskukada bat txingar hartu

eta jaurti egin eutsan Ilargiari,

erreuneak* arpegian sorturik.



Ilargiak, minduta eta zurbil-zurbil,* ihes egin* eutsan.

Eguzkiak, sutan eta gori-gori,* atzetik jarraitu eutsan.

Biak joiazan bizkor, biak abiada* baten.

Atzetik joiana, aurrean joiana baino bizkorrago.

Egunik egunera urrago...

Halango baten, hogeta-zortzigarren egunean hain zuzen ere,*

Eguzkiak Ilargia harrapatu zorian* eukala...

Dzart! Aienatu* egin jakon bera.

– *Non sartu zaiataz?* –esan eutsan amorruez.

Baina Ilargiak burua agertu ebaneko Eguzkia aurrean joian,

eta aurrera egin eban gelditu ezinik

abiadeak eroanda.

– *Harrapatuko zaitut!* –esan eutsan.

– *Bai, gero? Zelan? Noiz?* –erantzun eutsan irri-barreka.

– *Urrengo biran!**



Baina urrengo biran ere
beste horrenbeste jazo* jakon Eguzkiari
eta ezin izan eutsan atzemon.*

Egin ahalak egin arren

ezin izan dau Eguzkiak Ilargia egundo* harrapatu.

Ta, hor dabiltz oraindino, ikusten doguzanez,

Lurraren inguruan biraka

bata bestearen atzean eta atzetik;

bata gori, bestea zurbil.

* senar-emazteak = marido y mujer
* ba dakust = ikusten dot
* dirautso = dinotso

* sort-erazo = promover, ocasionar
* iruntza = garoa, rocío
* senetik urtenda = desquicidado, fuera de sí

* erreuneak = quemaduras
* zurbil = pálido
* ihes egin = iges egin, huir

* gori = incandescente, ardiente
* abiada = velocidad
* hain zuzen ere = precisamente

* ...zorian = a punto de...
* aienatu = desaparecer
* bira = vuelta

* jazo = suceder, ocurrir
* atzernon = harrapatu
* egundo = jamás